

KOKAPENA

MUTRIKU

ERAKUNDE SUSTATZAILEA

MUTRIKUKO UDALA

DENBORA-ERREFERENTZIA

2008-2009-2010

EKINTZA

Arnoko ingurunea Garrantzi Komunitarioko Leku bezala izendatu zuten 2004an. Horregatik, Udalak, balio natural eta historikoko gune hau babesteko ekintzak aurrera eraman ditu azken urteetan. Horien artean aipatzekoak: lur erosketak, zuhaitz landaketa...

LORPEN NAGUSIAK

Gutziz pribatua izatetik, orain zati bat Udalaren eskutan dago. Honela, Udalaren helburua, natur gune honek duen biodibertsitatea kontserbatzea eta mehatxuetatik babestea da.

ZAILTASUNA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

3

GIZARTE ERAGINA (1 Txikia / 2 Ertaina / 3 Altua)

2

DATU INTERESGARRIAK

Deskribapena:



Arno eta bere artadi zoragarria Europar Batasunak babestutako gune bihurtu ziren Natura 2000 Sarearen barnean, ingurune hau, Interes Komunitarioko Habitat bezala izendatua izan zenean. Laster, bere babesean aurrera pausu bat emango da eta Kontserbazio Bereziko Gune izendatuko dute.

Beraz, argi dago balio handiko ingurune hau babestu beharra dagoela eta honetaz jabeturik, Mutriku Udalak hainbat ekintza antolatzen eta burutzen dihardu 2008tik hona, helburu hori lortzeko asmoarekin.

Batetik, Udalak, Arnon lur erosketa publikoak egingo ditu; honela, lur hauen kudeaketa, berreskurapena eta babesa Udalaren esku geratuko dira eta ez da pisu guztia partikularrengan geratuko. Bestetik, Ormolako putzua eta bere ingurunea naturalizatzeko lanak burutzen ari dira; ur iturri orain arte ibili diren abereak eta baita animalia basatiak erabili ahal ditzaten putzuko itxidura aldatu da, ingurunea berreskuratzeko pasa den urtean 800 zuhaitz landatu ziren eta etorkizun hurbilean putzuan erabilitako plastikoa kendu eta maila geotestila jartzea aurre ikusten da eremu honetako bioaniztasuna ugaltzeko asmoarekin.

Udalaren lana, baina, ez da hor geratzen; herritarrei zuzendutako sentsibilizazio eta formazio lanak ere egin ditu, denon partaidetza beharrezkoa delako ingurune hau babestu nahi badugu. Horrela, iaz, Arno mutrikuarrei gerturatzeko helburuarekin, hainbat ekintza antolatu zituzten Arno Berpiztuz kanpainaren barruan: herritarrek ingurune honekiko duten iritzia jasotzeko inkesta egin zuten, argazki Rally bat antolatu eta herriko gazteekin gynkana dibertigarri bat ospatu zuten.

Udalak badaki hauek lehen urratsak besterik ez direla eta oraindik lan asko dagoela egiteko. Baina, Arnoko ingurunea, artadia eta biodibertsitatea babesteko helburu finkoa du.

Harremanetarako:

Mutrikuko Udala-Ingurumen Saila

Ingurumen Zinegotzia – Iñigo Aguirre

Telefonoa: 943603244

Emaila: inigo@dalainor.com
